



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

www.ttipi.net



Telefono Gida 2014  
ale honekin batera

2014ko abuztuaren 7a | XXXIV. urtea | 620. zenbakia

**Herrietako  
Bestak/Festak**

**ARANTZA → 11**  
Arantza Rock jaialdia  
abuztuaren 23an

**EZKURRA → 19**  
Erramun Martikorenaren  
kantaldia abuztuaren 18an

**ZUGARRAMURDI → 21**  
Ahate jokoa  
abuztuaren 17an

**AMAIUR → 24**  
Artzain Zakur Lehiaketa  
abuztuaren 15ean

**BIDAIA BEREZIAK** | Oporretik haina abenturatik

## Ekipaje arina eta... ezezaguna ezagutzeko grina



Bidaiatzeko modu ausartagoen zale direnek, aukeran nahiago dute bagaje arina bizkarreratu Itzuleran, ordea, bizipenez kargatua ekarri dute euren burua. Oroitzapenen kutxa irekitzeko eskatu diegu eskualdeko lau gazteri.

ERREPORTAJEA → 3-5



**ARANTZAKO UDALAK**  
besta onak opa dizkizue aranztar eta bisitari guztiei



ttipi-ttapa



# DISEINU GRAFIKOA

*Komunikazio elementuak garatzen ditugu :*

**IRUDI KORPORATIBOAK:** • logotipoak eta papergintza •

**ARGITALPENAK:** Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

**BERTZE EUSKARRIAK:** Boletoak, pegatinak, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak...

**EGUTEGIAK:** SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK...

Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA T. 948 635 458 kulturkari@ttipi.net [www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)



UTZITAKO ARGAZKIA  
Ekipaje arina eta ezezaguna ezagutzeko grina dira bidaiari hauen oinarriko ezaugarriak.

AISIA → BIDAIA BEREZIAK

# Motxila gibelean eta mundua aitzinean

Geroz eta gehiago dira atzerriko herrialdeak ezagutzeko modu hau aukeratzen dutenak

Esperientzia berrien gosez. Ohiko postaletatik urrunduz. Herrialdea bertako biztanleen begietatik ikusten saiatzen dira. Bidaitzeko modu merkeagoa izateaz gain,

aberasgarriagoa ere badela diote. Eskualdeko lau bidaiariri, oroitzapenez gainezka dituzten motxilak irekitzeko eskatu diegu, beraiek bizitakoa gurekin konpartitzeko.

## Eneritz IRAOLA

Helmugak eta bidaiatzeko arrazoiak desberdinak izan arren, ahobatez diote zituzten «aurreikuspen guztiak gainditu» zituela egingandako bidaiak. Joaneko tiketa erosi eta itzulera korrik gabe joan ziren batzuk, etorkizunaren edota poltsikoan zituzten txanponen esku

utiz itzulerako data, «bidaiak berak baitu garrantzia, pasatako denborak eta helmugak baino gehiago».

Bertzeek, xehetasunez programatu zuten guztia, azken minutu eta segundoei etekina atara nahian. Motxila zuten lauek bizkarrean, oinarriko jantzi eta elikagaiak bertan sartuta.

Hego Ameriketara joatea aukeratu zuten Edurne eta Noeliak, Ur Ekialde Hurbilean barrena ibili zen eta Jonek, Oihan lagunarekin batera, Moskutik Pekinerako bidea egin zuen tren transiberiarrean.

Hango paisaiek harritu eta bertako herriarekin gozatu zuten. Kultura eta ohitura des-

berdinak zituzten bisi-tariei, euren etxeetako atea zabaltzen zizkielako, batzuk dirutruk, bertzeek musutruk. Diotenez, mahaiaren bueltako solasaldi luzeetan edota batetik bertzerako tren eta autobus bidaietan ezagutu zituzten herrialde haietako benetako altxorak.

Zenbait estereotipo eta uste okerrak direla ere ikasi dute «lehendabiziko ikasgaia, besteei aurreiritzirik gabe ikusten saiatzea da».

Euren buruak hobeto ezagutzeko ere tartea izan dute, «sentitzen eta pentsatzen duzunaren inguruan galdera berriak sorrarazten dizkizu bizitakoak».

Gerora egin dituzten bidaietan ere eragina izan du «motxilero» ibili izanak, «ohartzen zara, ez duela zentzurik herrialde batetara bidaiatu duzula esateak, bertakoekin inongo harremanik ez baduzu izan» aipatu digute.

## OINARRIZKO BALDINTZA

«Oso garrantzitsua da beti esker onekoa izatea eta bertakoentzat jatorrian ez probestea»

## Ur ALGUERO

Aresotik Ekialde Hurbilerara

## KONPAINIA

«Bakarrik bidaiatu arren ez zara hala sentitzen, irekiak dira oso eta taldeko kide sentiarazten zaituztelako segituan»

## Edurne ETXEBERRIA

Leizatik Kubara

## GAUZEN BALIOA

«Hipotekarik gabe, elikagai naturalak edonon aurkituz, bizi-modu merkeagoa eraman ez dezakea bizitzea posible dela erakusten dizute».

## Noelia ARIZTIA

Doneztebetik Ekuadorrerara

Jon DE LA CRUZ | BERA

## «Treneko bagoian ikusitakoak herrialdearen argazki erreal bat ateratzeko aukera eman zigun»



### TRANSIBERIARRA

Moskutik Pekinera-ko bidea egin zuten trenez 22 egunetan.

Oihan Irazoki lagunarekin batera, egin zuen bidaia Jonek eta tren hotsa izan zuten lagun, batetik bertzerako bidea egiteko. «Transiberiarra hiru bide nagusitan sailkatzen da eta guk Moskutik hasita, Siberia eta Mongolia zeharkatzen dituen bidea egin genuen, Pekinen bukatzeko» azaldu digu. Trenak eta trenean ibiltzea aurrez ere maite zuten biek eta azaldu digu bertan bizi izan zituztela bidaiako momenturik politenak «jende pila bat ezagutu genuen, Errusiako alde ezberdinetakoak denak. Hirugarren klasean egin genuen bidaia. Hau da tiket merke-

**BIDAIAEN XEDEA**  
«Bidaiatzean lasaitasun edo luxua bilatu beharrean, jende eta toki exotikoak ezagutu nahi izaten ditugu»

na. 60 persona inguru joaten ginen hainbat ohatzetan eta biko-mun zikin zituen tren batean». Herrialdearen egoeraz ere jabetu ziren bagoi tiki hartan «Siberiako pobreziaz ohartu ginen eta ikusi genuen zein desberdina den Moskurekin alderatuta, hiri eta herrien artean ere desberdintasunak izugarriak dira». Ustekaberen bat ere izan zuten bidaiari «treneko gelatxo batean haragiarekin kontrabandean zebilen emakume bat harrapatu genuen». Izan zuten besterik ere, «bi pertsona hiltzeagatik 20 urte kartzelan pasa eta kalera atera berria zen gizon batek bere presondegiko

katilua oparitu zigun eta Txinan gure bizarraren ondorioz musulmanak ginela ere uste izan eta argazkiak ateratzen aritu ziren gurekin». Halako bidaia bat egin ondotik, «aurreiritzi gehienak erabat baztertzeko» direla aipatu digu «konturatzen zara, herrialde bateko jendea ezin dela ezaugarri bakar batekin definitu. Adibidez Errusian jendea hotza dela esaten da eta guk kale giro bikaina eta gurekin so-

lastu nahi zuen jendea topatu genuen». Mongolian nomada batzuekin egun bat pasa eta beraien Gerdan lo egiteko aukera ere izan zuten. Orokorrean,

«esperientzia bikaina izan zen, ikuspegia aldatu eta ditugun erraztasunei balioa ematera behartu gintuen egonaldia».



Noelia ARIZTIA | DONEZTEBE

## «Sistema lasaiago eta libreago bat ezagutzeko etorri nintzen Hego Ameriketara»



### NOMADEN MODURA

Urtebete darama Hego Ameriketara, artisautzatik bizi da.

Neska «ameslaria eta alai naiz, aske izan eta sentitzea gustuko duena» aurkeztu digu bere burua Noeliak. «Mundu desberdin baten bila» irten zen eta Doneztebe gibelean utzita Hego Ameriketara batetik bertzerara dabiltza pasa den urteaz geroztik. Gastuak ordaintzeko artisau lanetan aritzen da eta turista atzeritarrei berak egindako bitxiak saltzen dizkie. Horretaz gain, judoko klaseak ere ematen hasia da. Argentina, Bolivia, Peru eta Kolonbian barna ibilia da eta gaur egun Ekuadorren bizi da «Montañitas izenekoa hondartza turistikoko batean». Herri txiki eta la-

**BERTAN GERATZEKO**  
«Herrialde naturala, polita, ilusio eta energiaz betea da. Bertan nabari den lasaitasuna zoragarria da».

saia izan arren, «lan egiteko ego-gia» delako gelditu da bertan. Hego Amerikara berriz, bertako sistema lasaiagoa eta libreagoa zelakoan joan zen eta «espero nuena baina askoz garbi, moderno eta lasaiago da» aipatu digu. Herrialdea «naturala polita, ilusio eta energiaz betea» dela gaineratzen du. Herrialdera iritsi berritan, hostal batean boluntario aritu zen lanean eta hala bertako ohitura, janaria eta bizimodua hurbiletik ezagutu ahal izan zituen. Atzeritarrek etxean hartzen, «ohituak» daukela dio, «gurekin lan egiten dute, gurekin konpartitu, ikasi eta guri ere irakatsi». Ezagutu du-

en txoko bakoitzean «asko ikasi eta burua irekitzeko aukera» izan duela azpimarratzen du. Perun hasi zen artisautza lantzen, «bertako lagun batek erakutsi zidan dakidan guztia». Makrame teknika erabiliz bitxiak egiten dituzte, harriak, oskol desberdinak landuta, «bisitatzeko dugun toki bakoitzetik gure lanerako balio dezakeen materiala biltzen saiatzen gara».

Bertako lasaitasunak harritu du gehien «hipotekarik gabe, elikagai naturalak edonon aurkituz, bizimodu merkeagoa eraman ez bizitzea posible dela erakusten dizute».

«Bizitzak milaka aukera ditu eta niri hona ekarri nau» aipatu digu. Itzuliko dela dio «etxea eta ingurua maitatzen ditudalako, noiz ez dakit».



Edurne ETXEBERRIA | LEITZA

## «Bidaia ezberdina egin nahi nuen, etapa bat itxi eta beste bat irekitzeko trantsizio bat»



### ALDAKETA BILA

Kubara bakarrik joan zen, bere burua ezagutu asmoz.

Motxila bizkarrean hartu eta bakarrik bidaia bat egiteko erabakia hartu zuen Edurnek 2011ko udan. «Esperientzia berri bat probatu nahi nuen, nire burua gehiago ezagutu eta beldurrak gaintitu» aipatu digu. Aspalditik zuen herrialde hura ezagutzeko gogoia eta «irlak duen fama onak, bertako jendearen izaerak, eguraldi onak eta bakarrik bidaiatzeko lurralde segurua izateak» eraman zuten Kubara. «Oso informatuta» joan zela aitortu digu, lagun batzuk aurrez bidaia bere modu beretsuan eginazutelako. Joan aurretik, hegaldia eta lehendabiziko egunetako lotarako lekuak lotu zituen eta handik aurrera, «bertan erabakitzen joan nintzen, dena zetorren bezala hartuz eta bizituz». Esan digu Kuban hedatua dagoen turismo mota dela motxilarena «haien etxeetan bi edo hiru egunez geratu ohi dira motxileroak, logelak alokatuta, normalena lurraldean zehar mugituz bidaiatzea baita». Edurnek La Habana, Santiago eta Baracoan aurkitu zuen lotarako tokia eta aipatu digu azken horretako familiarekin harreman estua izan zuela «bikote bat eta bi seme alaba bizi ziren etxean eta momentu atseginak elkarbanatzen geni-

**KUBATARREN IZAERA**  
«Beraien umore ona eta laguntzeko borondatea azpimarratuko nituzke, duten gutxia ematen dizute»

tuen. Elkarrizketa interesgarriak izaten genituen bai Kuba eta baita Euskal Herriko egoera politikoaz, musikaz, janariaz, bizimoduaz, ohituretz...». Euren egunerokoaren parte bilakatu zen eta haiekin konpartitzen zuen eguna «elkarrekin joaten ginen hondartzara, kobazulo batzuk ikustera ere eraman ninduten» dio. «Turista eta kubatarren artean dagoen banaketak» harritu zuen gehien «kubatarrek beraientzat bakarrik diren autobusak dituzte adibidez. Poliziak kontrolatzen ditu eta ez diete turistengana hurbiltzen uzten». Bidaia hartatik ezagututako jendea azpimarratzen du, «benetan aztarna bat utzi zuten nire bihotzean, edonori gomen-datuko nioke bertara joatea».



Ur ALGUERO | ARESO

## «Munduan ikusi eta gozatzeko asko egon arren, ez da ahaztu behar erroak non ditugun»



### LAU HILABETEZ


Ekialde hurbilean, Turkiatik Indiako bidea egin zuen.

Haurra zela askotan irakurtzen zituen *1001 gaue*tako paisaiak ezagutzeko aukera izan zuen 2010ean. Otsailaren 14an abiatu eta ekainaren 6an itzuli zen. Hasierako asmoa «Turkiatik Indiarako hegazkinik hartu gabe bidaiatzea zen, tartean Irlandik pasaz, baina Pakistanen giroa nahiko nahasia zegoenez, Nepalera joateko hegazkina hartu behar izan nuen, han Annapurnako trekkinga egin eta gero joan India Iparralde-rantz» azaldu digu. Iranen egin zuten egonaldirik luzeena, «bostaste» eta bertako herritarren laguntzeko borondatea eta izaera azpimarratu dizkigu, «harro daude direna direlako». Indiako Sikh erlijio jendeaz ere dio «eskuzabalak dira, oso zuzenak, duintasuna da hobekien definitzen dituen hitza». Izan zuen esperientzia bitxiren bat bizitzeko tarte, «Iranen egon nintzen lehenengo herrian, Jolfan, ostatuko langile batek lagundu zidan bertako mugikorra lortzen, garraio sistemak ulertzen eta bere lehengusuarekin, Akbarrekin, jarri ninduen harremanetan ingelesez zekiela». Herrialdearen beste aurpegiak ezagutzeko «oso lagungarria izan zen» dio «adibidez, persiar festa batera eraman ninduen eta mendebalde-

ko aurreiritziak deuseztatzeko balio izan zidan». Gerora, Sannandajen bizitakoa ere gogoan du: «Kurdu familia batek etxean hartu ninduen pare bat egunez eta beraiekin izan nuen Netrooz-a ospatzeko aukera, inguruak eta beren dantza tradizionalak erakutsi zizkidaten, beraien ohiturak jazarriak dauden herrialde batean». Baina, agian kuriosoena «Shirazen euskaraz zekien zokoko saltzaille bat ezagutu nuenekoa izan zen, Euskal Herrian lagunak zituena». Bidaiak «bere buruari buruz ikasteko» balio izan zio- la aipatu digu eta horretaz gain, «ika-

**BIDAIA IKASIA**  
«Nire burua ezagutzeko balio izan dit eta erakutsi dit bidaiatzea ederra dela nora itzuli baldin baduzu»

si nuen egoerarik zailenean ere beti badagoela irtenbideren bat, ongi hausnartzu gero aterabideren bat».





**Nire txanda**  
Beñardo GOIETXE

## Bestak

**A**urtengo herrikoak pasatuxeak badira ere, agorrila bestaz gizen heldu da eta txanda honetan haurtzaroko oroitzapen xaflak kaskoan miatu eta hauexek atzeman ditut:

Amak, arreba eta biok arropa xuriz, eta mokanes, gerriko zein boneta gorritz jantzi eta barraketara joaten ginen, eta hantxe bai zoriontsu; txurro egin berriekin mingain puntta erre, zaldittoa jirabiraka goiti eta beheiti, auto-txokeen disko musika modakoa, 70-80ko super-hitak behin eta berriz ziztaka, eta aitaren begi zorrotzak tiro-pitxonetako xotxak kraskatzen.

Eguerditako etxeko banketeen eta siesta koxkorren ondorekin atsaldetako gauekoak lerroan. Aitarekin pilota partida, frontoiko bero sapa eta puru-zigaretaren ke-lanbro itogarria bat zirelarik. Amarekin, berriz, euskal dantzak frontoi berean; musika eta zenbait dantza maite nituen, bai, baina nire begiak adintsuak ziren neskatilari begira dantzatzeko ziren. Gero bestak pixka bat aldatuko ziren, lardingoa lanak gaueko lana behartzen baitzuen.

Halere, seme-alaba, iloba nahiz bilobekin batera, haurtzaroa beti barraketako zaldittoa gisara ibilki baita denontzat. Besta onak izan!

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Ezin zurian gelditu!

**H**aiek garaiak, idazlea paper zuriaren aitzinean zer idatzi ez zekienez! Albistearen titularrak ezin asmatu idazmakina mutu gelditzen zenekoa! Gaur egun, ordenagailu eta sakalekoekin, batak lagun izateko gonbitea, bertzearen guatsaparen mezua ailegatu denaren soinutxoak, hangoaren katu malabaristaren bideoari *Atsegin dut* sakatzeko eskakizuna... Noiz kristo hasi idazten??!

## Nabarmentzekoak



**Elias GARRALDA**  
Erakusketa Lesakan

Abuztuaren 31 bitarte ikusgai egonen dira Kultur Etxeko komentuko elizan Lesakan sortutako margolariaren lanak. Semea, alaba eta ilobak izan ziren inaugurazio ekitaldian.



**Mikel NIEVE**  
Leitzarra Frantziako Tourrean

Sky taldearekin ere maila bikaina eman du leitzarrak Frantziako Tourrean. Abudoxamar Froome taldebururik gabe gelditu zen, baina Porteri ere laguntza ederre eskaini zion.



**Erramun MARTIKORENA**  
Ezkurrari kantari

Festetako azken eguneko herri bazkariaren ondorekin kantari ariko da Ezkurrari. Baigorriko artzainaren ahots ederrez gozatzeko aukera izanen dute mahai inguruko giroan.

**Aztera begira → 2004-VIII-12 / LURRA 34-35 zk..**



## Donamariako monastegiko atek zabalik

Elkar ezagutza, otoitza eta lanari emandako bizimodua zuten eta dute Donamariako karmeldarren monastegian. Aunitzentzat ezzaguna den bizimodua, baina duela 10 urte Lurra aldizkariaren bitartez ezagutzeko aukera izan zena. Sortzez azpeitiarra den Olatz Garmendia monjak parez pare ireki zituen atek eta barneko *sekretuak* azaldu. Gehien bat enkuadernatze lanean aritzen ziren, «gero beste hiru lau lagun josten ibiltzen dira, baratzea ere badugu, oilotegia ere badugu, lan aunitz. Hemen aspertu ez gara egiten, hemen egunak motz gertatzen dira» zioen.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruña eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerenziain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia  
**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2013ko harpidetza sariak**

Hego Euskal Herria .....	40€	Europa .....	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka .....	34€
Ipar Euskal Herria .....	59,50€	Amerika eta Australia .....	124€	Leitza .....	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara  
Mankomunitateak diruz lagundua

### Prentsatik bildutakoak



«Gure zeregina profesionalei lana ahalik eta gehien erraztea da. Istripu bat gertatzen bada, guk ezin ditugu zaurituak autotik atera, adibidez; baina gure esku dagoena egin behar dugu, tresneria presatu eta biktimak lasaitu. Hori ere bada gure lana (...) Biktimak ezin du sumatu gu suhiltzaile boluntario edo profesionak garen».

**Andrea GOURAUD**  
Suhiltzaile boluntarioa, Bera  
HITZA, 2014.07.18



«Bailarako hamabortz herriak elkartzen garen besta da Baztandarren Biltzarra, arras polita dena. Folklorea eta kultura anitz lantzen ditu, gainera. Bestarako herri bakoi-tzak orga bat egiten du, bertako pasadizok oinarri hartuta. Eta bertze inon aurkitu ezin den orga desfilea egiten dugu. Giro paregabea egoten da».

**Lorea ATXA**  
Baztandarren Biltzarrekoa  
BERRIA, 2014.07.18

### 11 galdera labur

**Nola aurkeztuko zeniguke zure burua?**

Goizuetako karnizeroa, denek hala esaten didate.

**Zein afizio dituzu?**

Bizikletan eta mendian ibiltzea eta onddoak biltzea.

**Harategian aizkora edo labana erabiltzen edo bizikletan aldapaga moldatzen zara hobeto?**

Aizkora edo labanarekin hobeto.

**Zein da goizutarren artean harategiko produkturik estimatuena?**

Txuleta.

**Zenbat urte daramatzazu harategian?**

Lehen beste bat zegoen eta nik orain dela 22 urte hartu nuen.

**Krisia nabaritu duzu?**

Asko ez, baina bai, nabaritu dut.

**Herriko txokorik gustukoena?**

Gure auzoa, Sogaxiki, Antena bezala ezagutzen dena, oso polita da eta Goikoiturri ere oso polita da.

**Goizuetako festetatik gehien gustatzen zaizuna?**

Karnabalak nahiago ditut baina festetatik Peñaren Eguna aukeratuko nuke.

**Zer aldatu da lehenengo festetatik oraingoetara?**

Jendea asko bajatu da festetan. Lehen gazte pila etortzen zen kanpinera. Orain ere etortzen da jendea baina ezin da lehenengoekin konparatu.

**Zer dute faltan Goizuetako festek?**

Jendea. Badago jendea, baina ez lehenago bezala.

**Jai duzun egun baterako planik gustukoena?**

Bazkari edo afari eder bat egin eta ondoren kantatzea asko gustatzen zait, lagunartean eta familian.



**Ximon APEZETXEA PERURENA → Goizuetako harakina**

**Udako merkealdia**

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea




edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

## abuztuak 7 - irailak 4

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Erakusketak



BERA | 2014.07.31-2014.09.14

**Julio Caro Barojaren arrastoa gogoan erakusketa**

Julio Caro Baroja jaio zeneko mendeurrena hainbat ekitaldirekin ospatzen ari dira Beran. Irailaren 14ra arte, adibidez, erakusketa izanen da Kultur Etxean.

## Kontzertuak



ARANTZA | 2014.08.23

**Arantza Rock jaialdia antolatuta aurten ere Gazte Asanbladak**

Kalera, Afu, Xaiko, Governors eta Aierrik taldeak igoko dira abuztuaren 23an Arantza Rock-eko taula gainera. 22:30ean hasiko dira kontzertuak eta sarrera doakoa da.

## Ospakizunak




URDAZUBI | 2014.08.09

**Burdinaren Eguna Errotaren Eguna**

Aurten ere Burdinaren Eguna antolatuta Urdezubin eta horren harira, egun osoko besta prestatu dute. Irailaren 7an, berriz, Errotaren Eguna izanen dute.

## Nire aukera



Pablo IRAZOKI OLAIZOLA  
Sunbillako gaztetxoa

«Haunditzean pilotari izan nahiko nuke, Aimar Olaizola bezala»

Ezin erran herri bakarretarako bidean doan Pablo Irazoki Olaizola. Baionan jaioa da, baina erdia sunbillarra eta bertze erdia urdazubiarra sentitzen dela erran digu, «nire aita Sunbillakoa eta ama Urdazubikoa delako eta bietan egoten naizelako». Eskolara, ordea, Sunbillan joaten da eta «hama-hiru kintoak gela berean gaudelako hagitz gustura» dagoela kontatu digu. Baditu kontent egoteko arrazo gehiago ere, ikasurtea emaitza onekin akitu baitu. Gainerakoan, katuak dira «zalantzarik gabek» bere animaliarik maitteenak eta bi dituela adierazi digu: «bat Sunbillan, Xaxita, eta bertzea Urdazubin, Mixina». Katuez aparte, pilota da bere afizio handia. Txapel bat eta hiru kopa irabaziak omen ditu dagoeneko, eta Patxi Ordoki entrenatzailearekin pozik omen dabil pilotan. Etorkizunera begira pilotan segitzea gustatuko litzaiokeela onartu digu: «haunditzean pilotari izan nahiko nuke, Aimar Olaizola bezala», dio. Aimarrekin batera, Barriola eta Berasaluzeko dira bere pilotari gustukoak.

## Erakusketak

BERTIZ

**Euskal Artzainak Ameriketako elkarteko erakusketa**

**Abuztuaren 31ra arte**  
Bertizko Jauregian.

BERA

**Julio Caro Barojaren inguruko erakusketa etnografikoa**

**Irailaren 14ra arte**  
Kultur Etxean Julio Caro Barojak Berako baserrietan bildutako lanabesen erakusketa.

LESAKA

**Elias Garraldaren margo erakusketa**

**Abuztuaren 31ra arte**  
Kultur Etxean.

BAZTAN

**Artearen Ibilbidea**

**Abuztuaren 21era arte** Jose M<sup>a</sup> Apeztearearen margoak Erratzun.  
**Abuztuaren 31ra arte** Tomas Sobrinoren margo erakusketa Elizondon.  
**Abuztuaren 31ra arte** Xabier Soubeleten margoak Arizkun.  
**Abuztuaren 31ra arte**

Ana I. Gonzalez Diezen margoak Elizondon,  
**Abuztuaren 31ra arte** Diana Iniestaren margo erakusketa Erratzun.  
**Abuztuaren 16ra arte** Manuel Bermejoren margoak Elizondon.  
**Abuztuaren 18tik irailaren 6ra** Serapio Carreñoren argazkiak Elizondon.  
**Abuztuaren 31ra arte** Teresa Lafraguaren margoak Arizkun.  
**Abuztuaren 31ra arte** Xabier Santxotenen eskulturak Arizkun.

## Kontzertuak

BERA

**Organo, gaita eta txistu kontzertua**

**Irailaren 5ean** Julio Caro Barojaren mendeurrenako ekitaldien barne.

SARA

**Euskal kantekin kontzertuak**

**Abuztuaren 7an** Arin Luzien eskutik, 21:15ean elizan.  
**Abuztuaren 28an** Saiberri taldearekin, 21:30ean elizan.  
**Irailaren 2an** Larrun

Kantak-en saioa  
21:30ean elizan.

ARANTZA

**Arantza Rock jaialdia**  
**Abuztuaren 23an** Kalera, Afu, Xaiko, Governors eta Aierrik taldeak plazan, 22:30etik aitzinera.

## Ikuskizunak

ZUGARRAMURDI

**Lezean emanaldia**

**Abuztuaren 8an** Mitologia eta sorginleriaren txistu alardea 18:00etan.

## Ospakizunak

SARA

**Eskubaloiko elkarteen besta**

**Abuztuaren 16an** plazan.

LEITZA

**Independentzia eguna**

**Abuztuaren 9an** egun osoko besta.

URDAZUBI

**Burdinaren Eguna**

**Abuztuaren 9an.** Egun osoko besta.

**Pilotaren Unibertsoa**

**Abuztuaren 2an.** Horren barne, tortilla le-

hiaketa egingen dute.

**Errotaren Eguna**

**Irailaren 7an.**

## Lehiaketak

MALERREKA

**12-24 urtekoendako film labur lehiaketa**

**Irailaren 15era arte** aurkez daitezke lanak Osasun Zentroan, Mankomunitatean edo Doneztebeko Liburutegian CD batean edo [laburmetraiak@gmail.com](mailto:laburmetraiak@gmail.com)-era igorri. *Bes-taz eta lagunez gozatu alkoholik edan gabe edo gutti edanda* izenburupean.

## Azokak

SARA

**Ortzegunero azoka**

**Uztailaren 3tik irailera** 09:00etatik aitzinera bertako produktuen azoka frontoian.

**Ekoizleen merkatua**

**Abuztuaren 15ean.**

## Mendia

SARA

**Kontrabandisten lasterketa**

**Abuztuaren 24an** 09:30ean plazatik abiatuta.





### ABUZ TUAREN 14a OSTEGUNA

**20:00** Herriko txistulariak. **Ondotik** Herriko trikitilariak. **21:30** Zopa handiak Herriko Ostatuan eta Errandonean. **00:00** ARBOLAALTATZEA eta JOALDUNAK. **Ondotik** Dantzaldia Zesuma taldearekin.



### ABUZ TUAREN 15a OSTIRALA

**08:00** Diana. **Egunean zehar** HAURRENTZAKO PUZGARRIAK. **11:00** Meza Nagusia. **Ondotik** txistulariak eta joaldunak. **12:00** Mendaur trikitixa eskolaren emanaldia. **12:30** AIZKORA APUSTUA: Erasun-Saralegi. **18:00** Ibintza Taldeko dantzariak. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia Oihana eta Oihana trikitilariekin.

### ABUZ TUAREN 16a LARUNBATA

**08:00** Diana. **Egunean zehar** HAURRENTZAKO PUZGARRIAK. **10:00** Haurren pilota partidak. **10:30** MOTOR KLASIKOEN KONTZENTRAZIOA. **12:00** FUTBITOA (helduak). **16:00** Mus txapelketa. **17:00** Patata tortilla lehiaketa. **Ondotik** Berendua. **19:00** MUXIKOAK. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia Ezten Giro taldearekin. **22:00** GAZTE AFARIA plazan.

### ABUZ TUAREN 17a IGANDEA

**08:00** Diana. **Egunean zehar** HAURRENTZAKO PUZGARRIAK. **10:00** Haurrentzako jokoak. **Eguerdian** HAURRENTZAKO BAZKARIA. **16:30** Kulki jolasak. **17:00** PLATER TIROKETA herritarrentzat. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia Aierrik taldearekin.

### ABUZ TUAREN 18a ASTELEHENA

**08:00** Diana. **Egunean zehar** HAURRENTZAKO PUZGARRIAK. **11:00** Pala txapelketako finala. **12:30** Esku pilota txapelketako finala. **14:00** BERTSO BAZKARIA: Beñat Gaztelumendi eta Uxue Alberdi. **17:00** FUTBITOA (haurrak). **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia Modesto akordeoilariarekin. **02:30** ARBOLA BOTATZEA festei bukaera emanez.



### ERRANDONEA OSTATYA

ONGI PASA BESTAKO



948 450 216 · ZUBIETA

**ALBERTO RETEGI**  
**EDURNE PACHECO**  
ABOKATUAK

Altzate, 19 Behea  
31780 BERA  
948 63 07 63

**MADERAS**  
**SANTESTEBAN**

ONGI PASA BESTAK!

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)  
Bigak · Montajea obran  
Teilaturako egiturak  
Izei, haritz eta douglasezkoak edo laminatua  
Osagarriak · Autoklabe tratamendua

[www.maderasantesteban.com](http://www.maderasantesteban.com)

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77  
info@maderasantesteban.com

ZUBIETAKO UDALAK (NAIFARRON)

Zubietako Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
zubietar eta  
bisitari guztiei

### Arrate Estetiko Zentroa

948450286



- Manikura eta pedicura normale edo permanentea. 12€/30€
- DHA (autobronceador), 30€
- Bolumen galizeko masaiek. 45€
- Betilean permanentea. 30€
- Betilean maskara permanentea. 35€



ongi pasa bestak!

**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

**IMANOL ITURRIA**  
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137  
E-posta: imaiturria@hotmail.com

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

ONGI PASA BESTAK!

**PRIMI**  
ostatua

ongi pasa bestak!

Goiko karrika, 7 · ARANTZA  
Tel. 948 634 052

**BURLADA**  
Jatetxea

- Plater konbinatuak
- Ogitarkeak
- Eguneko menua
- Karta

Giro ona

T. 948 634 027 · ARANTZA

**GOIENBURU**  
iturgintza

ongipasa bestak!

iturgintza, kalefakzioa eta gasa eguzki plakak eta biomasa egurrezko kalderak eta aerotermita  
goienburu@gmail.com

Goienburu, 10 · 31790 ARANTZA · 600 902 723

**Patei Iturria**  
TAXIA - 8 PLAZA

666 894 833  
647 404 839  
Eguzkilaldea 29 · Arantza  
ONGI PASA BESTAK!

Gasa Ura Kalefakzioa

ongi pasa bestak!!

**froling**

Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA  
686 23 52 30  
patximutu@hotmail.com

ERAKUSKETA:  
Bidasoa, 45 - BERA

Zurgin lanak orokorrean

Armairuak  
Leihoak  
Ateak  
Teilatu berriak  
Parke flotantea  
Tarima  
Teilatu zaharberritzeak

**Luis Ibarra**

ongi pasa bestak

636 701 204

690 388 263  
luisibarra86@hotmail.es  
Salbatore karrika, 28 · ARANTZA

Koldobike GOROSTIZA URIGUEN | Pelle Ttikiko hezitzailea

## «Garrantzitsuena haurra lasai, goxo eta eroso sentitzea da, hezitzailearengan konfidantza izatea»



Koldobike hezitzailea ikasturte honetan Pelle Ttikin ibili diren neska-mutikoeekin.

Duela urte batzuk Dindaia Fundazioak haurren zaintza eta lana kontziliatzeko inkesta bat egin zuenean erabaki zen zerbait egiteko ordua zela. Gurasoen artean beharra bazela ikusi zen, eta Dindaia Udalarekin eta gurasoekin jarri zen harremanetan. Huraxe izan zen abiapuntua. Elizak garai batean Arantzako ikastola izan zen aretoa utzi zuen, eta Udalaren laguntzarekin, gurasoek auzolanean egoitza egokitu zuten. Ikastola zeneko izena ere berreskuratu zuten: Pelle Ttiki. Eta hala, 2007ko urtarilean zortzi neska-mutikorekin zabaldu zituen ateak lehenbiziko aldiz. Norbaitek Pelle Ttikiren harat-honatak ongi ezagutzen baditu, hori Koldobike Gorostiza da, gaur egun, bera delako hezitzailea eta sortu zenean «**ilusioz beteta eta gogo haundiz proiektua martxan jartzeko lan egin genuen guraso horietako bat**» izan zelako. Urte hauetan, haur kopuruan «**gorabeherak**» izan direla onartu digu, «**ikasturte oso bat hiru haurrekin egin genuen**». Baina garai hobeak etorri dira, eta aurtengo ikasturtea bederatzit neska-mutikorekin bukatu dute. «**Urtero jaiotzen den haur kopurua kontutan izanik, haur kopuru ederra da**». Irailera begira ere badira pozteko arrazoiak: «**ikasturtea zortzi haurrekin hasiko dugu, 2007an hasi ginen kopuru berdinarekin. Hagitz kontent gaude berriz kopuru horretara ailegatu garelako**». 1-3 urte bitarteko neska-mutikoentzako da Pelle Ttiki eta astelehenetik ortziralerara 09:00etatik 13:00etara eskaintzen du zerbitzua. Edozein moduz, «**guraso taldetxo batek eskatuko balu ordutegia zabalagoa izan daiteke**».

Dindaia Fundazioa da Pelle Ttikiren kudaketaz arduratzen dena: «**gehienbat langileekin loturiko gaiak bideratzen ditu, kontratua, aseguruia, hezitzaileen zalantzak, zerbitzua, zein metodologia landu... Ikasturtean zehar hezitzaileentzako ikastaroak antolatzen ditu**», dio Koldobikek. Finantziazioa, aldiz, gurasoen hilabeteko kuota eta Udalaren bitartez egiten da. Hala ere, Pelle Ttikiko erabiltzaileek, hezitzaileak eta lagundu nahi duten guztiek dirua biltzeko hainbatekintzetan parte hartzen dute: «**Arantza Rock-en ogitarkeak, Baserritarren Eguneko mahaia, Beheko Pisuetako bestetako Tiro Patxina, bi urtetik behin Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioa antolatzen da...**». Lan egiterakoan, Emmi Piklerren metodologia oinarritzen dira: «**metodologia hau mugimendu askean, begiradaren araberako erlazioan, haurra-erikiko enpatian, jarduera autonomoan... datza. Garrantzitsuena haurra lasai, goxo eta eroso sentitzea da, hezitzailearengan konfidantza izatea. Hezitzailearen papera laguntzea da**». Eta eredu horren formazioa jasotzeko egiten ditu Koldobikek noiznahi ikastaroak.

Abuztuan, ordea, oportetan izaten da Pelle Ttiki. Baina ez dira urrutit ibiliko, Pelle Ttikiko hezitzailea eta erabiltzaileak izanen direlako aurtengo beste hasiera emanen dien txupinazoa botako dutenak. Koldobikek txupinazoa botatzea «**ohorea**» dela erran digu, «**azken urte hauetan egindako lanaren saria da, hagitz kontent eta ilusioz beteago**». Bide batez, esker oneko hitzak ere izan ditu: «**eskerrak eman nahi dizkiet eskaini dugun zerbitzuan konfidantza izan duten guztiei, Udalari eta herritarrei orain dela zazpi urte martxan paratu zen zerbitzu hau mantentzeko egin duten ahalegin guztiagatik**».

# ARANTZAKO BESTAK 2014



ttipi-ttapa | 620 zbk.  
2014.08.07

11

## ABUZ TUAREN 14a ORTZEGUNA

**12:00** ALTXAFEROA Herriko Etxetik. **Ondotik** presoan aldeko brindisa eta kalejira herriko txistulariekin. **12:30** Herriko dantzari eta musikari ttikien emanaldia. **18:00** Haurrentzako HERRI KIROLAK plazan. **18:30** Herri kirolak frontoian. **19:00** GINKANA. **21:00** Dantzaldia Iratzar taldearekin. **21:30** Suzko zezena. **00:00-04:00** Dantzaldia Iratzar taldearekin. **Atsedena**dian Bingoa.

## ABUZ TUAREN 15a ORTZIRALA

**10:00** Diana herriko musikariekin. **11:00** Meza Nagusia eta prozesioa. **12:30** herriko dantzariak ARANTZAKO DANTZA dantzatuko dute. **18:00** MARGO TAILERRA. **18:30** Goitibehera erakustaldia. **19:00** PROFESIONALEN PILOTA PARTIDAK frontoian. **20:00** Dantzaldia. **20:30** BERENDUAFARIA parkean. **21:30** Suzko zezena. **00:00-04:00** Dantzaldia Laket taldearekin. **Atsedena**dian Irrintzi txapelketa.



## ABUZ TUAREN 16a LARUNBATA

**10:00** Diana herriko musikariekin. **10:30** Haur eta gaztetxoek HERRI LASTERKETA. **12:00** Entzierro ttikia **Ondotik** hamaiketako eta kalejira erraldoiekin eta herriko musikariekin. **16:00** Haurrentzako PUZGARRIAK frontoian. **17:00** PLATER TIROKETA Usua Ehizari Elkartearen eskutik. **19:00** BERTSO SAIOA. **21:00** Dantzaldia Jalisko taldearekin. **21:30** Suzko zezena. **22:00** Auzoetako afariak. **00:00-04:00** Dantzaldia Jalisko taldearekin.

## ABUZ TUAREN 17a IGANDEA

**10:00** Diana herriko musikariekin. **12:30** Haurrentzako eta gazteentzako BINGOIA. **13:00** KANTU POTEOA. **14:00** HERRI BAZKARIA. **Ondotik** poteoa eta kalejira txarangarekin. **18:00** Haurrentzako jokoak. **20:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin. **20:30** Bokadilo jatea plazan. **00:00-04:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.



## ABUZ TUAK 23 ARANTZA ROCK

**22:30** KONTZERTUAK PLAZAN: Kalera, Afu, Xaiko Governors eta Aierrik taldearekin. Sarrera dohanik.

**TOMAS TELLETXEA**  
zaharberritzeak

Esperientzia handiz edozein motatako erreformak egiten dira

Salbatore karrika, 22  
31790 ARANTZA  
Telf.: 686 348 355  
tellecheatomas@gmail.com

Ongi pasa bestak!!

**GORA AMABIRJINAK!**  
**borzrudo**  
INPRENTA - HOPISTEGIA

948 631 521  
material guztietan inprimatzen dugu  
Hamisetak 7 oparitzeko artikulua

**ilargi**  
okindegia

**APEZENA**

ongi pasa bestak!

Enkarguak 948 634 156 · ARANTZA

**ETXALAR**  
HOTEL-VENTA

Iruñea - Irun errep. 60km  
31760 ETXALAR  
T. 948 635 000  
F. 948 635 263  
info@etxalar.com  
www.etxalar.com

**ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN  
EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO  
AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU**

**EGUN OSOA,  
INORA MUGITU GABE,  
BERTAN PASA DEZAKEZUE:  
ZEREMONIA, BANKETEA  
ETA DANTZALDIA**

**EZKONTZA  
ZIBILAK**

- 275 lagunentzako jantokia
- Menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela
- Lunch afariak
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN

## ARROSAMENA zurgindegia

Zurgin lanak

BESTA ONAK PASA ITZAZUE!

948 63 51 44 • ETXALAR



**PLAZAKO**  
denda  
ongi pasa bestak!  
ETXALAR • 948 635 026

## IRIBARREN

Fabrikazioa, salmenta, instalazioa

Energia aurrezteko  
leihorik egokiena!



BESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU !!

Antsolokueta, 28  
31760 ETXALAR  
T./F. 948 635 071  
info@ventanasiribarren.com

haritzpe  
Ettxalarko jaiak

ONGI PASA BESTAK!


Goikolanda, 8  
31760 ETXALAR  
T. 618 778 328



Joxe Angel GOIENETXE | Etxalarko herriko langilea

## «Bestetan lanean goizean, argi hastean hasten gara eta ez dago jakiterik noiz akautuko dugun»

Herrian zerbait txukundu, prestatu, aldatu... behar bada, ez da urruti izanen Joxe Angel. «Herria kontrolpean mantentzen saiatzea» da azaldu digunez bere lana. Duela 26 urte inguru hasi zen herri lanetan, 58 ditu orain «atera kontuak» erran digu. «Herria aldatu da bizkorki ordutik orainerat» aipatu digu. Zereginen zerrenda luzea du Joxe Angelek, «uraren depositua eta ur-isuriak zaindu, estazio meteorologikoko datuak bildu, bideko adarrak moztu, loreak zaindu, usategietan postuak prestatu eta iratzeak moztu...» eta horietatik lanik haundienak ur isuriek sortzen omen dituzte «gostatzen zaigu kristonak arrautzia non diren, ur isuria dagoen tokitik ez delako kanpora ateratzen ura, lur azpitik edo errekarara joaten dira».



Joxe Angel Goienetxe.

Euri, elur, haize... datuak biltzea berriz gustuko du, «afizio kozkorra behar da, egunero egin beharreko lana da eta egunean hiru aldiz gainera. Ordu zehatz batzuetan datua jaso, apuntatu eta hurrengo egunean Aemetekoei ematen diegu». Fin bete duen lanaren seinale da egindako lanagatik Nafarroako Gobernuak eman zion saria.

### BERAK LAN, BERTZEK JAI

Bestak baino hilabete lehenago hasten da «altxaferuak, kankailuak... prestatzen» eta abuztuaren 14tik 18ra ere lanean aritzea tokatzen zaio. Indar indarreko lana «goizetako garbitasuna» izaten da, derrigor egin beharrekoa eta «baita zailena ere» dio. «Jendea giro eta umore onean ibiltzen da, zuk lan egin nahi duzu. Batzuk etxetik ateratzen, berteak erretiratzen, tarte arrautzea hagitz zaila izaten da» azaldu digu. Mangerarekin jendea bustitzea burutik pasa ote zaion galdetuta erantzun digu ez duela gustuko «mangerak presio handia duelako eta deskuidoan eginez gero bai, baina zuzenean eginez gero mina har dezakete. Kontuz ibili beharra dago kotxe, moto, bizikleta eta jendea tartean harrapatu gabe». Lana momentuka izaten du bestetan, «garbiketa egindakoan udaletxeak gosaria ematen digu eta gero ekitaldiaren arabera izaten da, batzuetan eguerdian, berteetan arratsalde edo iluntzean... dantzarietako zinta jarri, herri kiroletako aulkiak antolatu, mahaiak prestatu... izaten da zeregina». Horregatik, «hasi goizean argi hastean hasten gara eta ez dago jakiterik noiz akautuko dugun».

Gelditzen zaion denbora librean, bestarako «gogo handirik» ez duela aitortu digun arren, «tartean familiakoekin bazkari edo afariren bat» gustura egiten du. Egitaraua aurrean jarrita, bestetako egun guztiak «politik iruditzen zaizkio» baina berexiena Andremari eguna da bere iritziz «herriko dantzarien saioa, herri kiroletan giro polita arratsaldean». Altxaferoaren leherketa aurten, iaz baino lasaiago ikusiko duela ere erran digu. «Ixabelekin batera bota nuen altxaferoa eta momentuan urduri egon nintzen, gauza aunitz erran nahi nituen eta beldur nintzen denak ongi erranen ote nituen. Ez dakit ongi edo gaizki egin nuen, baina suerte pixka bat izan nuen altabozak ez zuelako martxatu» dio irriz. Aurten altxaferoa bota behar duenari ere gomendioa eman dio «erranen nioke lasai egoteko, baina zaila da gero kunplitzea».

Bukatzeke Etxalarko bestak ezagutzen ez dituenari «etorri, ikusi eta disfrutatu ditzala gomendatuko nioke. Etxalarko bestak, herria bera ere ez da itxusia eta etorri eta gero erabakiko du gustatzen zaion edo ez». Eta bertara joan ezkerro, erreparatu jardinetako loreei, garbitutako kaleei, ekitaldiak ikusteko jarri dituzten aulkiei, Joxe Angelen eskua atzean egonen da eta. Batzuek lan egin beharko dute, berteek herriaz disfrutatzen segitzeko.



### ABUZTUAREN 14a ORTZEGUNA

**19:45** Euskal presoan aldeko agerraldi isila. **20:00** ALTXAFEROA, txistulariak, trikitilariak, Eghoak txaranga, buruhaundiak eta kankailuak. Txanpaina, goxokiak eta globoak banatuko dira. **21:30** AFARIA frontoian. **00:00-03:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.



### ABUZTUAREN 15a ORTZIRALA

**10:30** Diana musikari, buruhaundi eta kankailuekin. **11:30** Meza. **12:30** HERRIKO DANTZARIEN SAIOA txistulari eta musikariekin. **Ondotik** Eskola Zaharreko atean hamaiketako dantzari eta musikarientzat. **17:30** HERRI KIROLAK. Harrijasotzaileak: Santxin eta Unai Bertiz. Aizkolariak: Etxeberria-Oihan Larretxea, Patxi eta Donato Larretxearen kontra. Txingak: Xanta. **20:30** Lesakako Abesbatzaren emanaldia. **00:30-03:00** Dantzaldia Dantzadi taldearekin.

### ABUZTUAREN 16a LARUNBATA

**10:00** Diana herriko trikitilarien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **11:00-13:30** eta **15:00-17:30** Haurrendako joko parkea, tren txutxua, puzgarri eta joko tradizionalekin. **13:30** ASAU TTIKI. **18:00-19:30** Herriko gazteen HERRI KIROL DESAFIOA. **20:00-22:00** Txutxin Ibañezen mariatxiak. **00:00-03:00** DJ Maia herritarra.



### ABUZTUAREN 17a IGANDEA

**10:30** Diana herriko txistularien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **11:30** Etxalarko haurren XXVIII. ESKU PILOTA txapelketako finala. **12:00** Etxalarko Gazteen arteko III. ESKU PILOTA txapelketako finala. **13:00** Sari banaketa. **17:30** XXII. Mus Txapelketa. **18:30** Herriko TRIKITILARIEN SAIOA. **Ondotik** berendua eskainiko zaie. **19:30-21:30** Saltoka, euskal musika eta dantza tradizionala. **00:00-03:00** Oharkabe herriko musika taldearen saioa.

### ABUZTUAREN 18a ASTELEHENA

**10:30** Diana herriko txistularien eskutik, buruhaundi eta kankailuekin. **12:45** BERTSO SAIOA: Arzallus eta Peñagarikano. **14:00** Jubilatuen bazkaria. **14:00** ASAU ermitako zelaian. Plaza ingurutik Eghoak txarangarekin batera denak elkarrekin abiatuko dira ermitako zelairat. **20:00-22:00** eta **00:00-03:00** Dantzaldia Gauenara taldearekin.

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Penen blusak

**kattogorria**  
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**JASONE-GOZOTEGIA**

948 630 786  
Altzate, 19 • BERA

*Besta zoriontsuak opa dizkizuet!*

**M<sup>a</sup> Luisa**  
629 438 705

**TAXIA**

**HERRIKO OKINDEGIA**

BEREZITASUNAK:  
- Ogi biologikoak  
- Espelta  
- Etxeko ogiak

**GORA HERRIKO BESTAK**

Egunero irekia: 06:00 > 13:00  
Tel. 661 76 70 27

**bai**  
BERRIKO  
MARIATXI

**ELUTSA**

TABAKOAK

**BESTA ONAK PASA ITZAZUE!**

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

**ETXALARKO UDALAK**

*BESTA ONAK OPA DIZKIZUE  
ETXALARTAR ETA  
BISITARI GUZTIEI*

**BENI** arraindegia  
Orain ere Eroski City-n

**EROSKI** city

Nagusia, 17 · T. 948 450 589  
Zazpigerutze, 8 · T. 948 456 152  
DONEZTEBE



**SASOI**  
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA  
T. 948 451 596 F. 948 456 168  
info@sasoi.es

ONGI PASA BESTAK



**DONAMARIAKO**  
HERRIKO OSTATUA

Uxarrea, 79 · DONAMARIA (Navarra)  
T. 948 450 127 M. 630 055 993

Plater konbinatuak  
Razioak  
Eguneroko menua  
Menu bereziak

ONGI PASA BESTAKO!



**IRATXO**  
kobazuloa  
ostatu-jafetxea  
665679713  
DONAMARIA

Ongi pasa bestak

Pizak · Razioak · Plater konbinatuak



Frutas  
y Verduras  
**FRANDONEA, s.l.**  
FRUTAK ETA BARAZKIAK

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA



**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466



**DONAMARIA-GAZTELUKO UDALAK**



Besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei



# DONAMARIAKO BESTAK 2014

## ABUZTUAREN 14a ORTZEGUNA

**19:00** HERRI KIROLAK: Gazteak ez hain gazteen aurka. **20:00** TXUPINAZOA.  
**20:00** Trikitilariak eta buruhandiak. **21:00** Zopak Herriko Ostatuan. **00:00**  
Dantzaldia, Tirri & Tery Dj-arekin.

## ABUZTUAREN 15a ORTZIRALA

**10:00** Diana auzoz-auzo, gaiteroekin. **11:00** Meza. **12:30** Luntxa Herriko Ostatuan. **17:00** Frontenis txapelketako finalak. **20:00** Kantaldia Guajiroak taldearekin.



## ABUZTUAREN 16a LARUNBATA

**12:30** AIZKORA APUSTUA: Donato Larretxea-Oihan Larretxea / Joxe Mari Olasagasti-Ander Erasun. **13:30** PAELLADA HERRIKOIA. **17:00** Goitibehera lehiaketa. **19:00** Poteoa, Eztanda batukada taldearekin. **21:30** Herriko ostatuan afaria. **00:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

## ABUZTUAREN 17a IGANDEA

**Goizez eta arratsaldez** Haurrendako parkea. **17:00** Mus txapelketa. **18:00** Herriko plazan txokolatada. **19:00** MAGRAREN PISUA ASMATZEA ETA TXAPEL TIRAKETA. **19:30** Tortilla patata eta postre lehiaketa. **21:30** Herriko plazan afari herrikoia Anjel Mendiberri soinulariarekin.



## ABUZTUAREN 18a ASTELEHENA

**11:00** Diana auzoz-auzo herriko txistulariekin. **14:00** HERRI BAZKARIA: Bixente soinulariarekin eta Andoni Egaña eta Julio Soto bertsolariekin. **Arratsaldez eta gauetz** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

# ORNOZ MUGAIRIKO BESTAK 2014



ttipi-ttapa | 620 zbk  
2014.08.07

15



## ABUZ TUAREN 14a ORTZEGUNA HAURREN EGUNA

**10:00** Herri krosa. **12:00** TXUPINAZOA. **Ondotik** kalejira herrian barrena herriko gaztetxoek animaturik. **14:00** Haurren bazkaria. **16:00** Skit Plater Tiroketa. **16:30** HAUR ETA GAZTETXOENDAKO GINKANA ETA PROBAK. **17:00** Mus Txapelketa Ongi Etorri ostatuan. **21:00** Baztan zopak. **00:30** Dantzaldia Frantzisko akordeoilariarekin. **06:00** Xingar jatea.

## ABUZ TUAREN 15a ORTZIRALA AMABIRJIN EGUNA

**11:00** Meza Nagusia. **12:00** HERRIKO HAURREN DANTZA EMANALDIA. **Ondotik** luntxa. **17:30** Pala Txapelketako finalak. **19:00** Trikitixa erakustaldia herriko gazteen eskutik. **20:00** Puro Relajo taldearen emanaldia. **22:00** KUADRILEN AFARIA. **23:00** Dantzaldia Gabenara taldearekin.



## ABUZ TUAREN 16a LARUNBATA GAZTE EGUNA

**10:30** Txistulari eta gaiteroekin kalejira. **12:00** Parbxis Txapelketa. **14:30** GAZTE BAZKARIA Azkazkorronean. **Ondotik** kalejira txarangak alaiturik. **20:30** Dantzaldia eta gazte mozorro besta Frantzisko akordeoilariarekin. **21:30** Tortilla lehia-keta. **23:30** Dantzaldia Roberto DJ-arekin.

## ABUZ TUAREN 17a IGANDEA HERRIKO EGUNA

**10:00** Kantatutako dianak. **14:00** Herri bazkaria. **17:00** Dantzaldia Salaberrirekin. **20:00** HERRI KIROLAK. **21:30** Txorizo eta patata tortilla dastaketa. **22:00** Salaberrirekin dantzaldia.

## ABUZ TUAREN 18a ASTELEHENA RESAKA EGUNA

**21:00** Auzo afariak.



**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador  
Biurrana, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127

**Miren Gortari Sein**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**ONGI PASA BESTAK!!**  
Martin Urrutia · ORNOZ-MUGAIRI · T. 948 59 23 10

**ERREKA-ALDE**  
zurgindegia  
Zurgin lanak orokorrean  
Teilatuak · Sukaldeak · Armairu enpotratuak  
Tfnoa: 948 592 070 · ORNOZ-MUGAIRI

**ONGI ETORRI**  
Bokatak · Pintxoak · Plater konbinatuak  
ongi pasa bestak!  
948 59 20 26  
ORNOZ-MUGAIRI

**PIERRESENEA** OSTATU JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
ITURRIOTZ AUZOAN · ORNOZ MUGAIRI · 948 592 043

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagar-dotegia jatetxea  
Alasta karrika  
Tlf: 948 625 474 · BERA NAFARROA

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopanak
